# Eguneroko inbertsioa

## Guztira, 111 artelan zaharberritu ditu Bilboko Arte Eder Museoak 'Zaindu' programa abian jarri zuenetik

Naiara Baza

URTERO legez, Bilboko Arte Eder Museoak aurkeztu ditu pasa den urtean zehar berritutako artelanak El Corte Inglés-aren babesari esker abiatutako 'Zaindu - El museo restaura' programaren barnean. Aurkezpenean Javier Viar museoko zuzendariak, Ángel Serna merkataritza-gunearen zuzendariak, Josune Ariztondo Kultura diputatuak eta José Luis Merino Gorospe Kontserbazio eta Zaharberritze Sailaren nagusiak hartu zuten parte. Guztiek azpimarratu zuten Merinoren taldeak egindako lana, batez ere, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak. "Obra bat erosteak inbertsio handia eskatzen du, baina inbertsio hori behin bakarrik egiten da. Hala ere, badago beste inbertsio bat lehen aipatutakoa bezain inportantea dena; zainketa, hain zuzen ere. Nahiz eta distira gutxiago izan, bigarren inbertsio hau egunerokoa eta ezinbestekoa da, beraz, eskerrik asko Bilboko Arte Eder Museoari urte hauetan egindako lanarengatik", esan zuen Ariztondok.

El Corte Inglés-aren eta pinakoteka bilbotarraren arteko lankidetza hasi zen 1990ean –2000. urtetik aurrera 'Zaindu - El museo restaura' izenpean– eta, harrezkeroztik, guztira 111 artelan zaharberritu ditu museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Sailak. Izan ere, eta José Luis Merino Gorospek aitortu zuenez, "programa hau ez da gure urteko eginbehar bakarra, baina inportanteenetariko bat, bai".

**Banan-banan**

Aurtengo zaharberritutako artelanen artean, nabarmenena José de Madrazok (Santander, 1781 - Madril, 1859) 1816an egindako *Francisco Javier Gardoqui Kardinalaren erretratua* izan da. Neurri handiko olio hau Bilboko Udalak margolari kantabriarrari egindako enkargua izan zen –Gardoqui kardinal izendatu zutenean– eta artista honen produkzio osoko erretraturik esanguratsuenetarikoa da.

Euskal Artearen bildumatik, Aurelio Artetaren (Bilbao, 1879 - Mexiko DF, 1940) bi obra zaharberritu dira: *Azokara* eta *Sardinasaltzaile eserita*, hain zuzen ere. Azken obra honen berriztapena "ez zegoen aurreikusia urtearen hasieran; halere, behar diren indarrak izan ditugu egiteko", azaldu zuen Merinok.

Bestaldetik, Nemesio Mogrobejoren (Bilbao, 1875 - Graz, 1910) *Amatasuna*, 1895eko igeltsu pintatua; eta Andrés Nagelen (Donostia, 1947) *Bilboko lagunak* (1980) eta *Galerista madrildarrak Benidormen* (1982) izeneko eskulturak berreskuratu egin dira aurtengo 'Zaindu' programari esker.

Azkenik, normalean erakusten ez diren lanen fondoko hamabi marrazki zaharberritu ditu museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Sailak. Hauek, paisaiak eta pertsonaiadun eszenak gehienbat, Julio González eskultore ospetsuaren anaia zen Joan Gonzálezenak (Bartzelona, 1868 - 1908) dira.

Artelan horiek guztiak ikusgai daude dagoeneko Bilboko Arte Eder Museoko erakusketa gelatan.




Javier Viar, Josune Ariztondo, Ángel Serna eta José Luis Merino Gorospe



Aurelio Artetaren *Azokara*



*Galerista madrildarrak Benidormen*

> "Programa hau ez da gure eginbehar bakarra, baina inportanteenariko bat, bai"

# Las pirámides de Bilbao

Jaime Cuenca




**Vuelven las atracciones**
**Saioa Olmo (coord.)**
Consonni, 2010
192 págs.

HUBO un tiempo en que un Bilbao orgulloso y exultante erigió sus propias pirámides. Y a su sombra levantó una montaña rusa, una noria, un tren fantasma, un zoo… Aunque los más jóvenes no lo hayan conocido, Bilbao tuvo su propio parque de atracciones. La misma crisis que hundió fábricas y astilleros lo cerró al público en 1990, y desde entonces sólo la silueta de sus pirámides puede vislumbrarse sobre la cima de Artxanda. Una silueta que delata el espacio abandonado de las viejas promesas y las infancias perdidas: tan presente a nuestros ojos, y tan inaccesible.

En el año 2007, el viejo parque abrió sus puertas de nuevo gracias a un proyecto de la artista Saioa Olmo, producido por consonni. No se trataba de restaurar las atracciones con el brillo inocente del primer día, sino de algo más complejo y sutil: explorar el territorio emocional que se extiende y crece entre sus ruinas. Durante el mes de octubre de 2007, 500 personas pudieron acceder al parque de Artxanda, y recorrer toda una serie de nuevas atracciones fantasiosas con la mirada de su imaginación. El libro *Vuelven las atracciones* documenta aquellas visitas guiadas.

Muchas de las fotografías de los visitantes han sido incluidas en la publicación, que se convierte así en una suma de los asombros y las nostalgias de los participantes. Estructurado en forma de visita alucinada por el parque, el libro reúne algunos recuerdos inéditos de un Bilbao que ya no es, rescatando un fragmento añorado de nuestra más reciente intrahistoria. Presenta, además, una serie de textos que enmarcan el proyecto en una reflexión teórica más amplia sobre el capitalismo del entretenimiento o las ruinas contemporáneas.

Las pirámides de Bilbao seguirán velando mucho tiempo, en la distancia, las ilusiones de una época pasada. Este libro (que puede encontrarse en Anti- liburudenda) es la última oportunidad disponible para acercarse a ellas; al menos en espíritu.